



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

LAUTAN HIRU, antzerki txikia – festibal handia (IV. aldia)

Antzerki-ekoizpenari laguntza (700 euro + beste 700 euro lana 2022ko LAUTAN HIRU jaialdian estreinatzen bada)

- Euskaltzaindiak antzerki-ekoizpena sustatzeko laguntza sortu zuen 2020an, Bilboko Udalaren babesarekin. Aurtengo hau bigarren aldia izanen da.
- Helburu nagusia euskarazko antzerkia hauspotzea da, batez ere, pieza laburren sorkuntzari lagunduz. Horrez gain, hautatutako lana jendaurrean estreintzeko aukera ere emango zaio sarituari (epaimahaiak hala baderitzo, ekoizpenaren jarraipena egin ostean).

Oinarri-arauak

- Antzezlanek gehienez ere 30 minutu eta gutxienez 15 minutuko iraupena izango dute.
- Testuek euskaraz idatzita egon behar dute.
- Antzezlanak jatorrizkoak eta estreinatu gabekoak izan behar dira; hau da, ez da beste hizkuntza baten itzulpenik edo antzezlari luzeago baten moldaketarik onartuko.
- Era berean, ez dira onartuko antzerako beste laguntzaren bat jaso duten piezak.
- Bakarrizketak ere onartuko dira.
- Lanak areto txikietan antzezteko modukoak izango dira; hau da, formatu txikiak; pertsonal eta beharrezko tekniko gutxi eskatzen dutenak.

Gaia eta moldea

- Libreak izango dira.

Epaimahaia eta aukeraketa

- Epaimahaia LAUTAN HIRU antzerki-jaialdiko arduradunek osatuko dute.
- Epaimahaiak lan bakarra hautatuko du.
- Epaimahaiak laguntza ez ematea ere erabaki dezake.
- Epailen erabakia apelaezina izango da.

Saria

- 700 euroko laguntza gidoiari +
- beste 700 euro antzezlana 2022ko LAUTAN HIRU jaialdian estreinatzen bada (epaimahaiak erabakiko du hori, ekoizpenaren jarraipena egin ostean).

Epeak

- Gidoiak bidaltzeko epea 2021eko urriaren 15ean amaituko da.
- Parte hartu nahi dutenek lanari buruzko ahalik eta informaziorik gehien bidali beharko dute posta elektronikoz.



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Bidali beharreko derrigorrezko datuak:

1. Taldearen izena.
2. Jatorrizko testua (testu-fitxategi batean edo pdf formatuan).
3. Antzezlanaren zuzendariaren eta gidoilariaren izenak.
4. Antzezleen izenak.
5. Laburpena.
6. Gutxi gorabeherako iraupena.
7. Antzezteko tokiaren ezaugarriak eta beharrian teknikoak.

Piezaren bideo laburra -lagin bat- ere lagungarria litzateke.

- Informazioa posta elektronikoz bidaliko da Euskaltzaindiaren helbide honetara: **info@euskaltzaindia.eus**, mezuaren GAIAn hauxe adierazita: 'LAUTAN HIRU antzerki-ekoizpenari 2022ko laguntza'.

Antzezlanen jabetza

- Ikuskizunaren jabetza eta lana beste kulturgune batzuetan antzezteko eskubi-dea muntaia egiten duen talde edo konpainiarena da, baina etorkizunean egingo lituzketen emanaldien publizitatean beren-beregi azaldu beharko litzateke 'LAUTAN HIRU ekoizpen-laguntza' jaso duela.